

KarKara

24A

ZENIAKIA

ORIOKO ALDIZKARIA

1993KO URRIA

Elkarrizkila

Jose Mari Olasagasti

Erreportaia

Estropada-giroa argazkitan



“EUSKARAZ, GAZTE” LITERATUR LEHIAKETA

Oinarrak

- 1.- “Euskaraz, gazte” literatur lehiaketaren helburua Orioko gazte-jendearen artean idazteko zaletasuna suspertzea da.
- 2.- Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 3.- Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta, beste hizkuntzaren batean idatzia egon eta lehiaketarako euskaratutakorik ere.
- 4.- Lehiaketan parte hartzen duten norbanakoek Oriokoak izan behar dute edo Orion bizi.
- 5.- Lehiaketan parte hartzeko gutxienez hamalau urte izan behar dira eta gehienez hogeita bederatzi.
- 6.- Lanen luzera librea izango da.
- 7.- Lehiaketak bi modalitate izango ditu: ipuina eta olerkia.
- 8.- **Lanak aurkezteko era:**
Lanak makinaz idatziak aurkeztu beharko dira.
Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du eramango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituena eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.
- 9.- Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbidea eta telefonoa.
- 10.- **Sariak.**
Ipuinen modalitatea.
1. saria: 60.000.- PTA
2. saria: 30.000.- PTA
3. saria: 20.000.- PTA
4. saria: 10.000.- PTA
Olerkien modalitatea.
1. saria: 60.000.- PTA
2. saria: 30.000.- PTA
3. saria: 20.000.- PTA
4. saria: 10.000.- PTA
- 11.- **Epaimahaia.** Epaimahaia Udaleko Euskara-Batzordeko kide batek, KARKARA aldizkariko kide batek, Udal Euskara-Zerbitzuko Teknikariak eta euskaltegiko irakasle batek osatuko dute.
Epaimahaia hutsik utz ditzake sariak.
- 12.- **Lanak aurkezteko tokia eta epea.** Lanak Udaleko Euskara-Zerbitzuan aurkeztuko dira. Lanak aurkezteko azken eguna **urriaren 29a** izango da.
- 13.- Orioko Udalak berea izango du saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.

KarKara

aldizkaria

Herriko Plaza, 1
20810 ORIO
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua
SS 346/90

ISSN
1132-1105

Tirada
800 ale

Erredakzio-taldea

Marisa Arruabarrena

Manu Etxeberria
Miren Etxeberria
Jabier Gaiton

Ana G. de Txabarri
Ana Iturain
Iñaki Iturain
Nere Manterola
Jabier Zabaleta

Kolaboratzaileak

Dilistak Taldea
Arantxa Oiarzabal
Patxi Oliden
Aitor Sarasua

Azken orrialdeko marrazkia

Daniel Bastos

Argazkiak
Ana G. de Txabarri

Inprimategia
Bizker (Usurbil)

- 4 Gutunak
- 5 Herrian galdezka
*Zer iritzi dute komunikabideek
oriotarrei buruz?*
- 6 Herriko kontuak
- 10 Kirolak
- 13 Bertsoak
Bertsolari gazteen karrera.
Aitor Sarasua
- 14 Erreportaia
Estropada-giroa argazkitan
- 16 Iritzia
Orio eta Euskara. Arantxa Oiarzabal
- 17 Elkarrizketa
*Jose Mari Olasagasti: "Uste dut gure
etapa egin dugula"*
- 20 Denetik piska bat
- 25 Kolaborazioa
Udalekuak Orion
- 26 Azkena

Irakurleei

Ikusten duzunet, itxura aldatuta dator uda ondoko KARKARA hau. Lau orrialde gehiago izateaz gain, formatuan ere aldiaketa batzuk egin dizkiogu, alitzkarria atseginago egin nahian.

Edukiari dagokionez ere, izan da aldiaketen bat edo beste, esate baterako, alderdi politikoek beren txokoa izango dute KARKARAn hemendik aurrera. Datozen aleetan ere, beste hainbat berrikuntza egin nahi dugu, beti ere eskaintzen dizuegun produktu hobetzeko asmoz.

Betrikuntzak gustokoak izango dituzuela espero dugu.

Erredakzio-taldea



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

Orioartekoari

Inongo eztabaidean sartu gabe eta iruzkin gisa zera esan nahi dizuet: Badirudi zeuen "KARKARA" irakurrita herri honetan denak futbolari, arraunlari eta gehien jota judokak direla. Esan nahi dut bagaudela beste batzuk ere herrikoak garenak esa "behatzta txaparzen" ez dugunak. Herri honetan parapentean jausitzen direnak badira eta baitu olatuak hartzen ditugunak; gainera bi kirol hauek kanpotar jendea erakartzen dute gure herriak dituen baldintza egokiengatik.

Ez naiz ezer eskatzen ari; begiak ireki ditzazuen eta denon "KARKARA" bat egiten saia zaitezten bakarrik.

Agur eta "zoriotxarrak" oraingoz. Ea zuen "zoriotxarretarako" sailan agertzeko trebetasuna duzu.

Umore onez:

The Grid. Idazlea nor den garrantzirik ez duela pentsatzu.

ORIOTAR BAT

Euskera bihotzean daramagunok

Euskerari buruzko bi artikulu irakurri berriak ditut. Bertan aipatzen ziren, beste gaien artean, Gasteiz, Bilbo eta Donostia euskaldunen portzentaiak eta udaletxeetako langileriaren euskararen ezagupen-maila.

Orain ikusita, portzentai horiek hor daude, baina datu hauek hiri horietan, Espainiako gerra zibila aurretik hartu izan balira, zer nolako beherakada nabariko genukeen euskerarentzat! ze, lehenago aipatu ditugun udal langileen ezagupen-maila, noski, probintzia mailako portzentaien araberakoa izango baitzen.

Nahiz oso borondate ona agertu «bilingüismo» horretaz, ez al dugu konturatu behar, gauzak horrela badoaz behintzat, oso urte gutxi barru, berriro hartu behar bagenu, portzentai hori ia-ia hutsean aurkituko genukeela?

Gogoan dut, berrogeita hamarrreko hamarkadan izango zen, trenet Bilbora nindoala, Eibarren sartu ziren egundoko baserritar andre piloa, Zaldibar aldera zihoazenak, denak euskeraz hitz eginez, eta nere ondoan atzerritar batek nola-zioen: «A mí me encanta oír estas lenguas muertas». Hau entzun hutsez, nere erantzuna: «¿A que le llama usted lengua muerta? ¿no ve que la estamos viviendo?»

Gaur ez dut uste orduan hainbeste etxeak undre etorriko denik trenet, baina jarraituko ote lukete ausardi osoz euskeraz hitz egiten orduan bezela? Noski, kultura aldetik begiratuko bagenu, erderaz jakitea onuragarria litzateke; baina euskeraz? ez al dugu ikusten, azken berrogeita hamar urte hauetan jaitsi den kopurua?

Nere uste apalean, gogokeria baliteke bide ona ez izatea euskeraren etorkizunari begiratuta, baina beste biderik ha al dago? ez al da imposaketa ikasketak, ulertzen ez genuen hizkuntzan egitea? ez al da gogokeria, anai-arrebaren bat edo beste sendi artekoren baterekin telefonoz hitz egiten hasi eta berehala entzutea «Hablen ustedes en cristiano!»

Nik uste, gerra ondorengo urte haitan, Francok geroa ondo ikusi zuela. Erraztasun guztiak izan ziren Euskal Herri osoan etxebizitzak eraikitzeko eta industria mailan aurreratzeko. Ez noski bere kaltetan. Zer ondoriorekin? Bada Espanian zehar gu baino arzeratuagoak ziren herrietako jendea, hona etor zedin, beren hizkuntza hemen indartuz. Nik uste, hau izan da euskerarentzat etsairik haundiiena. Okerrena da, orain ia-ia euskeria galdu den honetan, industria mailan ere, oztopoa besterik ez digula jartzen Francok, (barkatu, PSOEk esan nahi nuen).

Euskal Herrian zer bide hartu genezake? ni ez naiz nor erabakirik hartzeko: baina agintean dauden euskal gizon deitzen diren horiek, geroari begira, erresponsabilitate galantza dutela uste dut, euskerak daruman beherakada

(hiltzerainokoa?) ikusiz.

Badakit euskera gaietan, lehenago bakar batzuk bakarrik zirela jakitun eta gaur askoz ere gehiago direla berian sakonduta direnak, baino badakit baita ere, euskera, ez dugula behar museoan edukitzeko, biziak baizik.



PATXI OLIDE

Oharra: Lehen, «nadurrik gabeko» gauzak ez argitaratzea erabaki genuen eta horrela jakinarazi genizaten sail honetan bertan. Orain, beraz, kontutan hartuz ez dugula gauzak argitaratzen eta jasotzen ditugun gauzak, horiek ezkouan sinatu gabe datorela, irtegia aldatu eta iristen zaizkigu gauzak argitaratzea erabaki dugu. Ben etc., gutunetan esaten denea inoiz central itzingerria ez denean, noski.

KarKara

Herriko Plaza, 1
20810 ORIO
Tel. 83 15 27

1993ko
publizitate-prezioak

Modulo bat	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa	27.000 PTA

Prezio hauak zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaki guztiak beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.

Zer iritzi dute komunikabideek oriotarrei buruz?

Nork ez ditu estropadak telebistaz ikusi edo irratitik entzun? edo, nork ez du estropadaren baten ondorenean egunkarian jartzen duena irakurri? Nola ikusten dute Orio komunikabideek? Nola daude ikusiak oriotarrak? Noren alde jartzen dira komunikabideak?



JON FERNANDEZ
43 urte

Nik uste det nahiko inpartzialak egoten dirala; nik uste, lehenagotikan duen famagatik edo, iruditzen zait Orio arraunean oso kontutan hartzen dala, ta nik uste det sinpatia edo badiola jendeak Orion.



INAZITA ESNAL
46 urte

Neretzako, ikusi dedantza, San Pedroren alderako, nik gehienetan ikusi dedana telebistan da, ta hura San Pedroren alderako. Ondo ikusita daude, aspaldiko popularitate haundi dute lako, aspaldiko arraunlariak dira lako.

IBAN INTXAUSPE
17 urte

Diario Vascon, nere ustez San Pedroren alde daude, irratin eta... Orion alde ere bastante, dantek... San Juan droga kontu horrekin asko bajatu da, normala... Periodikoan behintzat San Pedro famatzen dute. Orio ondo ikusita dago herri estropalaria dalako,



AMAIA GOZATEGI
24 urte

Neretzako, komunikabide danak San Pedroren alde daude. Neretzako oriotarrak gaizki ikusiak daude, inbibida edo edukiko dute... Diario Vascon kriston pila igertzen da San Pedrora tiratzen dutela.



Bertan egindako
opil eta ogiak



ORIOGI
OPIL OKINDEGIA

Frontoi ondoan
Tfnoa: 83 01 89

CINETARAK
POLTSAU
AREIZAGA
Abeslari, 4

AXUN
JANARI DENDA
Tfnoa: 83-59-02

LEGENDA
Etxeko helatuak
eta kruasanak

San Nikolas 17 TFNOA 131747

URANGA
BURDINDEGIA

EUSKO GUDARI 7
TFNOA 831236



«Euskaraz gazte» kanpaina urria-azaroan

Euskara Batzordearen Gazteen Azpibatzordeak antolatuta, ekintza-programa zabala izango da Orion urriaren erdialdera hasi eta azaroaren bukaera arte, «Euskaraz gazte» lemapean.

SIADECOK «Orioko gazteak eta euskara» gaiari buruz iaz egindako estudioaren ondorioz jarri da martxan aurten Gazteen Azpibatzordea eta berak antolatuko du kanpaina. Studioak agerian utzi zuen Orioko gazteek gutxi erabiltzen dutela euskara eta kanpainaren aurtengo helburu nagusia gazteen artean arazoaren kontzientzia sortzea eta euskararekiko kezka eta interesa piztea da.

Kanpaina honek hasiera emango dio bost urtetan burutu nahi den egitasmo anbiziotsu bat. Azpibatzordeak gazteen arloa euskalduntzeko bost urteko programa jarriko du martxan eta aurtengo kanpaina horren abiapuntua baizik ez da.

Gazteen Azpibatzordean parte hartzen dute, besteak beste, Udaleko Euskara Batzordea osatzen duten zingotziez gain, herriko bi ikastetxeak, gazte-taldeek, kultur taldeek eta baita gai honetan interesa duten hainbat gaztek ere.

Kanpainaren barnean antolatuko diren aktibitateak era askotakoak izango dira: bideo eta diapositiba emanaldiak, mendiko irteerak, bertso-afariak, bidaiak, ikastaroak, esku-lanen erakusketak, eta abar. Euskara Batzordeak, bestalde, gaiari buruzko bideo bat grabatzeko asmoa du, ondoen herritarren artean banatzeko.

«Euskaraz gazte» kanpaina Jaione Arrillaga irabazi du logotipoa aukeratzeko lehiaketa

Udaleko Euskara Batzordeak lehiaketa bat antolatu zuen uda aurretik «Euskaraz gazte» kanpainarako logotipoa aukeratzeko. Lehiaketako lehen saria Jaione Arrillaga Manterola gazte oriotarrak irabazi du eta, beraz, berak egindako logotipoa izango da urrian eta azaroan egingo den kanpainen erabiliko dena. Jaionek 50.000 PTAko saria jaso zuen alkatearen eskutik irailaren 23an egin zen sari-banaketa ekitaldian.

Lehen sariaz gain, 12.500 PTAko bi akzesit ere eman ziren: bat Yolanda Ubegunek irabazi zuen eta bestea Eneritz Erkiziak.

Goiko argazkian alkatearekin eta Euskara Batzordeko buruarekin ageri dira irabazleak. Behean, berriz, lehen saria irabazi duen logotipoa ikus daiteke. Logotipoa bi koloretan den arren, hemen txuri-beltzean ageri da.



Aldaketak Udal musika-eskolan

Urtero bezela, irailean jaun da martxan Udal musika-eskola.

Aurten hainbat berrikuntza izan da. Zuzendari berria izendatu du Udalak eta, irakasle batzuk ere aldatu egin dira.

Xabier Lizaso pianojole oriotar gaztea izango da zuzendaria 93-94 ikasturte horretan eta, klaseak emateaz gain, bere ardurapean izango du eskolaren funtzionamendua.

Diputazioak ez du udaletxea berritzeko laguntzarik eman

Orioko Udalak herriko udaletxea berritzeko Gipuzkoako Foru Diputazioari aurkeztu zion proiektuak ez du haren babesik lortu aurtengo.

Aurreko KARKARA batean azaldu genizuenez, proiektua egina dago dagoeneko, baina, itxura denez, itxoinga beharko du ejecutatzeko, kostuak handiegiaiak baitira Udalak berak osorik bere gain hartu ahal izateko.



Xabier eta Zarina, kontzertu eder batzen protagonistak

Musika-emanaldi bikainak izan dira udan zehar

Udaleko Kultura Batzordeak eta Festa Batzordeak antolatuta, uda osoan zehar, kultur programazio zabala izan dugu. Aukera zabal horretan, musika izan da ardatz nagusia. Herritarren erantzun ona ikusi eta gero, bete-betean asmatu delakoan gaude.

Zerbait azpimarratu behar eta, elizan izandako hiru kontzertuak aukeratu ditugu, guztietan jendearen eratzuna ezin hobea izan baitzen. *Azkuek* Santiago Azurzaren omenezko emanaldia eskaini zuen uztailean. *Amadeus* taldeak ere kontzertu ederra eskeini zuen abuztuaren 8an eta zer esan, berriz, *Xabier Lizaso eta Zarina Badovoskaren* emanaldiari buruz?, benetan opari bikaina izan zen han bildu zirenentzat.

DORRONSORO
Janaridenda

ABESLARI, 3

TELEFONO 83 09 37



Gure herriko garagardoa

ERRUSTA
taberna

Kriston bokadillok!!

Koasta
Taberna

Lasaitasuna
eta
giro ona

"Emaiok buelta!"
bertso-eskola
Orion


Xurrumuru Kultur Taldeak, Orion bertso-eskola sortzeko asmoa du. Jenderik nahiko osatzen baldin bada, behintzat, ikasturte honetan bertan jarriko da martxan eskola hori.

Bertso-eskolan parte hartu ahal izateko, Lore Burdindegian eman behar da izena, urriaren 1etik-15era bitarte. Izena eman ahal izateko, 10 urte beteak izan behar dira, Taldeak adinaren arabera egingo dira.

Taldeen sailkapena eta ordutegia, urriaren 18an, astelehena, erabakiko dira, Horretarako, bilera izango da arratsaldeko zazpietan, udaltxean.

Hemen duzue, Xurrumuru Kultur Taldekoek presztatu duten bertsoa jendea erakarri nahian:

Gure herria aspaldi dabil bertso eskola baten zai. Jende dexente dago Orion bertso giroaren usal bildurrik gabe etor zaitezte Txomin, Petra eta Joxemai. Ask o dakin onartzen degu gutxi dakin ere bai.



Bukatu da uda sasoia

Etorri da berriro negu beltza, udazkenez mozorrotoa. Horren frogagarrido, ikustekoa izan zen itsasoak hartutako itxura irailaren hamairuan. Argazkian ikusten duzuen moduan azaldu zitzaigun, eta nahikoa komeri ere izar zuen, hondartzaino hurbildu zen jendeak, olatuei ihes egiteko.

Horrelako aukerarik ez zuten izan bertan taberna eta jatetxeak dutenek eta bonba baten laguntzaz, lokaletatik ura atera nahian aritu ziren. Gauetan marearen beldur ere baziren, eta hondarra pilatuta jarri behar izan zuten tok askotan. Gehienek aurtengo denboraldiari bukaera emateko aprobetxatu zuten.

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI
BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi
harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65

RAMIRO

ARGAZKIAK

T 83 10 48

URBAZTER

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

13 33 14

GABON

Taberna-Kafetegia

Telefona: 83 06 09

Dilistak elkartearen aktibitateak haurrentzat



Dilistak taldeak haurrentzako aktibitateak antolatuko dnu urritik nurrera. Hilean behin -hilaren lehen larunbatean seguruena- Orioko haurrentzako ekintza eta jolasak antolatuko dituzte Dilistak-eko kideek.

Aktibitate horietan parte hartu nahi dutenak urriaren 2an, larunbata, azal daitezke izena ematera 12:00etatik 13:00etara frontoiko alda-pako parbulario zaharraren aurrean dagoen lokalera, Iturbide kaleko 11, zenbakian. Dilistak taldeak antolatutako ekintzak 8 urtetik 12 urte bitarteko haurrentzako dira.

Santiagoko bide zaharra konpontzen aritu dira auzolandegiko gazteak

Aurtengo Orioko gazte-auzolandegian ibili diren gazteek —estatuko toki askotatik etorritakoak— Santiagoko erromesbide zaharra berritzen aritu dira uztailean. Bi txanda izan dira, lehenbizikoan 19 gaztek hartu dute parte eta bigarrenean, 24ek. Orio eta Donostia mendiz lotzen dituen bidearen zati bat —Andu baserrian hasten dena— galtzada bat da eta hori da, hain zuen ere, txukundu eta konpontzen aritu direna.

Orioko Udalak oso balorazio positiboa egin du aurtengo gazte-auzolandegiari buruz, nahiz eta ez den posible izan lan guztia bukatzea. Galtzada-bidearen laurdena-edo da aurten konpondu dena.

Egindako lanak hiru izan dira, batez ere: lehendabizi, bidea eta murrua sasiz eta belarrez garbitzea; bigarren, erorita zeuden harrizko murruek berrieraikitzea eta, azkena, buztin-kapa baten azpian zegoen galtzada azaleratzea eta bistan jartzea.

Kepa Loidik urdaitegiko masterra lortu du

Kepa Loidik Gipuzkoako beste bost harakinekin bateria urdaitegian masterra lortu du, Baionako lan eskolan.

Aurten hiru hilabetez aritu dira ikastaro honetan titulua lortu arte, baina hau ez da Kepak egin duen haurrenengoko ikastaroa. Iaz ere ehun eta hogeit orduko beste ikastaro bat egin baitzen, Baionako eskola horretan bertan.

Ikastaro honetan foie, pate eta beste Frantziako zenbait produktu nola egiten diren ikasi ahal izan dute.

KOLON TXIKI

Herriko plaza, 4

☎ 83 00 44 13 20 26

ertza

USAINEGIA



Ibon Urbieta, Jon Salsamendi, Patxi Franches, Amañu eta Aitor Esnalek aurten estatuko txapelketa irabazi zuten, lemazainduen laukoan

Jon Salsamendi eta Ibon Urbieta munduko arraun txapelketan

Jon Salsamendik eta Ibon Urbietak hamargarren postua lortu zuten, B finalean laugarren postua, lemazainden laukoan, munduko arraun txapelketan. Txapelketa, abuztuaren 29tik irailaren 5a bitarte jokatu zen Roudnicen (Txekiar Errepublikan).

Jon eta Ibonekin batera parte hartu zuten beste bi arraunlariak ere gipuzkoarrak dira; Iñaki Mendizabal (Donibaneko arraunaria) eta Josu Andueza (Koxtapeko arraunaria). Lernazaina berriz, Sevillako Jacobo Castañeira izan zen.

Marisko Biberoak

Telefonoa: 13 12 97



- Angulak
- Mariskoak
- Arrai finak

Ostalaritza Zerbitzua

ORRAZKERA

AITA LERTXUNDI, 22
TFNOA. 83 12 61

**Autoak aukera
onean
AIA ORIO**

Telefonoa: 13 04 38

**GURE TXOKO
TABERNA**

ARITZAGA KALEA

Orioko arraunlariet ferry bat mugitu baietz

KARKARA kalera ateratzen lehenago jakingo da ea Orioko arraunlariak gauza izan diren apustu hau irabazteko.

Tele 5 telebista kateak eskeini dio erronka hau Orioko klubari Espanako txapelduna izateagatik, eta irabaziz gero milio bat pezeta sartuko litzateke klubeko kontuan.

Nahiz eta dagoeneke emaitza jakin apustuarer berri ondoren izango den programa batean ikusi aha izango da, bera erne deno eguna eta ordua jakiteko.

Corte Ingleseko estropada bukatuta, ekingo diotz entrenamendu berezi bat eginizko proba horri aurri egiteko.

Entzun dugu Orioko hondarzalearen ontzia erabiliko dutela frogetan.

Benetan bitxia apustua Ferry-a Pasaiaren dago eta haritzango da saioa, eta oraingo honetan pasaitarrek, agian Orio animatuko dute.

Hemendik gure bultzada txoa eta animoak eskeintzea dizkiegu estropalariei, den beharko dute-eta.

Aurten ez da emakumeen futbol talderik osatu Orion

Azken urte hauetan, Oriok emakumez osatutako futbol taldea izan badu ere, aurten ezinezkoa izan zale hori osatzea.

Aurten Elkarteak egindako deialdiak ez du arrakastarik izan Orioko nesken artean, lauk besterik ez baitzuten izenik eman. Gainontzeko guztiak —haien zuzen ere hamazazpi— zauru tarrak izan ziren. Beraz, taldea Zarautzen bertan osatzea erabaki zuten.

Bestelako da berriz, gizonzkoen taldearen egoera.

Dagoeneko, regionaleko lehen mailan hiru partidu jokatu dituzte, eta bostgarren postuan daude, lau puntuarekin. Jokatutako hiru partiduetatik, bat irabazi egin zuten Ordiziako taldearen aurka eta beste bi etan banako berdinketa lortu zuten, Tolosaldea eta Anaitasunaren aurka.

Aurten bi baja izan dira, Rogelio eta Juanjo soldaduzkan daudelako eta hiru berri sartu dira: Zigor Etxaniz, Klaudio Etxeberria eta Iñaki Arostegi.



Lehenbiziko aldiz, gizonzkoen saski-baloi talde bat du Oriok

SORTU BERRI DEN EKIPUA HAU, REGIONAL MAILAN ARITZEN DA, ETA ADIN DESBERDINETAKO MUTILEZ OSATUA DAGO, ARGAZKIAN IKUS DAITEKEEN MODUAN. TALDEA OSATZEN DUTENEN IZENAK HONAKO HAUEK DIRA: Antxon eta Mauri G. de Txabarri, Iñaki Arruabeurrena, Juan Angel Martikorena, Jon Ortiz de Ginea, Lukas, Arkaitz Agirre, Satrustegi, Imanol Lizaso eta Rikardo Uzkudun.

Oraindik, entrenatzailerik ez badute ere, laguntzaile gisa Joakin Aranburu aritzen da. Babeslea berriz, Oriogi okindegia dute.

SARASUA ERRETEGIA

Berezitasunak: — Arrain zopa
— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29
Tfnoak: 83 00 05
13 25 32

BORDATXO
Taberna

13 30 14

TXOMIN
ARRAINDEGIA

Eusko Gudari, 42

Tfnoa: 83 27 47

LIZASO
ALTZARIAK

Eusko Gudari, 46 83 07 84
Aita Letxundi, 6 13 33 01

Ignacio Arbesu eta Jose M. Lizaso

“Uste baino latzagoa izan zitzaigun Santiago Bidea bukatzea”

*Uztailaren 12an
Orreagatik abiatu eta
nekez beteriko
hamaita egun luze
pasa ondoren lortu
zuten beren helburua
Jose M. Lizaso, Kike
Esnal, Ignacio
Arbesu eta Iñaki
Mayoz oriotarrek:
Compostelara
heltzea.*

**K.: Noren burutapena
izan zen?**

Ignacio Arbesu: Xako-beoa zela eta, Iñaki eta biok pentsatu genuen Santiago Bideko benetako ibilbidea mendiko bizikletaz egitea polita izan zitekeela bai kirola eta baita turismo aldetik ere, eta bide batez lagunen artean aukera ona ondo pasatzeko.

**K.: Joan aurretik fi-
sikoki preparatu al zine-
ten?**

José M. Lizaso: Joan aurretik hamabost egun pasa genituen, egunean hirurogei bat km. eginez. Honek asko lagundu zigu abentura hau bukatzen, izan ere Santiago Bidea uste baino askoz ere gogorragoa egin baititzagun denori. Burgoseko eta pa bakarrik izan genuen lau samarra, baina gainontzeko guztia aldatuak ziren.

**K.: Bidaia bertan behe-
ra uzteko tentaziorik ez ze-
nuten izan?**

I. A.: Leon pasata eia Gali-zian sartzera gindoazela, gorriak ikusi genituen Cebriero izeneko mendiko pasobatean. Baina denok oso



Lau lagunak Orreagan, curia egin zien egun bakarrean

garbi geneukan bukatu egin nahi genuela, eta burutik pasa ere ez zitzaigun egin abandonatzea.

**K.: Lo egiteko nola mol-
datzen zineten?**

J.M.L.: Aurrena beti herrian egoten zen albergeruntz jotzen genuen nolabait erro-mesen giro hori bizitzearren. Gerohantzik ez bazegoen gure kontura bilatu behar. Leonen primeran deskan-tsatu genuen antolaturiko kanpanendu handi batean, baina hurrengo etapetan zaila izan zen toki libre bat harrapatzea, Andaluziatik eta Madriletik zetozenei erromes gehienek Leonen ekiten ziotelako martxari, bertanino trenez etorrira.

**K.: Santiago Bideak ar-
tearena zein beste alorre-
tan dituen edertasunetan
erreparatzeko denborarik
eduki al zenuten?**

J.M.L.: Bai, Bizikletekin arazo teknikorik ez bazeuden, goizeko 8etan atera, 80 edo 100 bat km, egin, eta 3,30tarako etapa bukatu egiten genuen. Orduan arratsal-

de guztia libre gelditzen zi-tzaigun nahi genuena egiteko: herria ezagutu, toki interesarriak bisitatu, edota baina ere piszinara joateko, egun gehienetan kriston bera egin baitzigan.

**K.: Bide osoa mendiz
egitea bizikletantzako
egundoko jipoia izango
zen, ezta?**

I. A.: Bai, handia! Kontutan izan gutako bakoitzak 25kg.ko karga zeramala bizikletaren gainean, eta bidexka askotan harria eta hautsa besterik ez zegoela. Hala ere martxa ez genuen horregatik mantxotzen eta aldatetan txistu bizian ibiltzen ginen. Hortan konfun-ditu ginen edozein herrian bizikletak konponduko zizkigutela sinistuta baikunden. Hau horrela ez zen izan eta kilometro asko baldintza txarretan egin behar izan genituen; erruedak oker-oker eginda, kambioak izorra-tuta, parrillak hautsita... Dena den, gorabehera hauiek abentura kutsu piska bat erantsi zioten bidaiai.

**K.: Baino arriskua ere
bai, ala ez?**

J.M.L.: Kamioa berez arriskutsua ez da, nork bere buruari ze martxa ezartzen dion duen hor zegok koxka. Poliki joanda ere egin daiteke, baina orduan egunero hamabi ordu beharko ziren guk nahi genuen denboran bukatzeko. Nere iritziz, oinez egitea askoz ere gogo-rragoa da. Bizikletan zoazela ipurdiak sufritzen du gehien, baina egunetik egunera jarri egiten zara. Oinezkoena, berriz, hori bai pasada bat zela! hankak zisko eginda...

**K.: Ze klonklusio ater-
tzen dituzue?**

I. A.: Bukaera gogorra izan arren, oso gustora ibili ginen, ondo pasatuz eta parre ugari eginez. Jendeari atentzia deitzen zion gure artean geneukan martxak, baina jarrera alai horrek asko erreztu zigu zenbait albergetan tokia lortzen, eta jendeak ondo onartu gintuen.

Bertsolari gazteen karrera

-1-

Nahiz lore batzu sortzen ziren lehen
jorratzen ez zen lurretik
orain lehenbizi erein egin behar
ta gero zaindu hurretik
Orion hola erne zaizkigu
irtenbide bakarretik
mila zorion irakasleei
ezertan hasi aurretik

-4-

Gazteek oinez jakin orduko
dute karrera azkarra
sarketa eta txapelketetan
elkar gainditu beharra
entzuten dute "izan zaitezke
telebistako izarra"
fama lortzea bihurtu ote da
motibazio bakarra?

-2-

Lasartetarrak, Altunatarrak...
lehen ere hainbat badira
orain gazteak datozen atzetik
urrunagora begira
denak ahotsa moldatu asmoz
mikrofonoen neurriira
tostek ez duten garaipenen bat
ekar dezaten herrira

-5-

Bertso kantari elkar pozteko
hartu gabe nahiko asti
gazte-gaztetik izarren bila
eskola asko doazti
izar izan nahi duten denentzat
ez da noski leku aski
zeruan mila kabitzen dira
baina telebistan zazpi

-3-

Telebista ere iristen zaigu
lehengo ohitura zaharrera
pozgarria da bertsolaritzak
hor izan duen harrera
baina aidanez alde haundirik
ez da onetik txarrena
bertsolarien ibilbidea
bilakatu du karrera

-6-

Punta-puntako izenetara
iritsi nahirik aurrena
herri mailako bertsolaritan
egiten dugu herrena
zabal dezagun bertso giroa
kale zulotan barrena
bertsotan ondo pasatzea da
distirarik ederrena.

AITOR SARASUA

LIZAS

ERLOJU eta
BITXI DENDA

Eala, 3

Tfnoa: 83 1

ITURAIN
okindegia

Aritzaga **83 08 28**

K2



Izarra

Bideo-produkzioak
Hi-Fi TV Bideoak
LPak, CDak eta zintak

Izarra Aitorrasagasti

Aritzaga kalea 5
Tfnoa: 83 38 81

OLIDEN
HARATEGIA

EUSKO GUDARI, 2
TFNOA 83 10 86

Estropada-giroa argazkitan



Gutxitan ikusi dugu hainbeste oriotar Donostiariko estropadetan. Goiz-goizetik, horia zen nagusi Alde Zaharreko txoko guztieta, kamisetak, tamaina eta era guztietaako banderak, gorro eta txapelak jantzia.

Aipatzeko iruditu zaigu zaletasuna soinean eraman nahi izan dugu, eta, irabazteaz gain, arraunketarekin disfrutzen ikasten ari garela.

Zaletasuna aipatzekotan ezin alde batera utzi M. Frantziska. Urtero bezala, bokadilo eta guzti, arraunlarien ondoan ikusi dugu. Denok biziko dugu estropada giroa baina, seguruuenik, berak bezala inork ez duela sufritzen, irratitik jarraitzen dituenean.





Azkenean sei bandera izan dira traineruarekin eskuraturakoak. Argazkian Orion bertan izandako estropadan, lehia bizian agertzen dira gure mutilak. Nahiz eta Kontxakoa ez lortu aurten, benetan denboraldī ederra burutu dute.



Udaletxeko balkoitik oriotarren zorionak eta txaloak jasotzea ohitura da guretzat, eta aurten ere izan dugu horretarako aukera. Horiz jantzia, gehienok, ez dugu hutsegiten.



Erreuibimenduetan ez da inoiz musika eta martxa falta, eta Perona da, noski, indar eta gogo handienarekin aritzen dena. Saltoka eta dantzaren txarangak jartzen du saltsa.

Orio eta Euskara

IRITZIA

6 urte dira Oriora lanera natorrela eta ustekabea izan zen neretzat, bertan, euskaldunen artean, entzuten den hainbat erdiara entzutea. Neu Getariakoa naiz eta handik hona alde handia aurkitu dut.

Poztu naiz Orioko herrian Euskaren erabilpenaz bertakoa ez den baten iritzia jasotzearen, iritzia eskatu didattenean, gaiari buruz hemen kezka dagoela adierazten baitu.

Badakit hainbat oriotarri herrian dagoen erdararako joerak kezkatzen diela, KARKARA hau lekuko, euskara hutsez aterea.

SIADECO Oriora etorri zenean, gazteen arteko hizkuntz erabilpen inkesta eta soziolinguistikako emaitzak entzutera, aretoa gainetza bete herriar izan zen. Bistan da, kezka adierazle da. «Euskaraz gazte» kanpainian murgiltzeko prest gazte taldeak ikusi ditugu, ideiak eman eta gogoz lan egiteko nahiarrekin, «gazteak euskaraz» helburua dutelarik. Udalak hizkuntz normalizazio rako araudia badu, betetzeko asmoarekin. Gainera, dagokionez, Euskara Zerbitzua du herriarrei eskainia. Euskaltegia ere ari da azken urteotan euskalduntzen eta alfabetatzan. Eskola-Ikastola ere euskalgintzan ari dira bete-betean. Elizak ere egiten du bere ekarpena. Eta ziur aski, beste hainbat elkarreko edota euskaltzale ari dira euren



ARANTXA OIARZABAL

IRAKASLEA

eguneroko lan isilean.

Halaz ere, nik, plaza zeharkatzean, kaleetan nabilenean, kafetxoa hartze-rakoan, autobus geltokian... sarri askotan espafiola entzuten dut euskaldunen artean. Min dut; min barruan.

Zaragueta eskolan lan egiten dut. Bertako klaustroaren kezka nagusiene-tako bat ikasleen arteko erdararako joera da, batibat goi mailan. Gure artean aztertai izan dugu eta, ondorioz, ekintzak burutu. «Euskaraz bizi» kanpainarekin hastera goaz eta, aldi berean, irakaslegoak dugun giro euskalduna lortzeko itxaropenez.

Euskarak hizkuntza bizia izan behar du, komunikazio une eta harreman orotan ibilia behar da, baita ere, norberak barne-barnekoen zaizkion hizkuntza-ren lotura horietan, *pentsamenduan* alegia. Euskaraz pentsatzeko hizkun-

tzak oso barneratua egon behar du. Honeala, hizkuntza pentsamenduaren isla-dan neurriari, euskal pentsakera uka-tzen dugu erdararen errezetasunak har-tzen gaituen bakoitzean. Hizkuntza ezik, euskal pentsakera ipintzen dugu arriskuan.

Gure herri nortasunaren garrantzi handiko ezaugarria euskara da, eta horretaz jabetzea behar luke izan (uste dut hala dela) herria osotzen dutenen nahi. Eta gauzatzeko borondatea ezik, herritar gaztien ahalegina behar du izan; familia bidezko transmisioa. Eskolak eta Ikastolak hezkuntz irakaskuntza euskalduna emanez, herriko elkartea desberdinak (kirol, mendi, gastronomia, emakume, marinela eta gazte) euren eguneroko ihardueratan, lagunarte, koadriletako harremanetan, denda, kafe-tegi eta hainbat toki publikotan, erru-tulaziotan, musikan, harrera euskaraz emanez eta giro euskalduna senti eta biziarriz.

Herritar erdaldunak inguruaren eraginaz era natural batean euskara ikasteko edota bultzatzeko garapen prozesuan sartuz.

Gure gizartea gero eta erdaldunagoa da, gure erronka hauxe da, J. A. Artzak ondotxo dioenez: «Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitzegiten ez dutelako baizik».

ASEGURUAK

C C L

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

JUAN LOIDI AZKUE

Aritzaga, 3 · 1 Telefonoa: 83 11 90 ORIO

ZASS

ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA

SOLARIUMA

PERFUMERIA

San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

Jose Mari Olasagasti

“Uste dut gure etapa egin dugula”



Nekeak jota bukatu dute 1986. urteko denboraldi urrun hartan hasitako ibilaldi luze eta gorabeheratsua. Kirol egoera eta ekonomikoa ona uzten dute, eta, beste batzuk klubaren etorkizuna bideratzeko garaia iritsi dela uste du.

MANU ETXEBERRIA

KARKARA: Aurten-
go denboraldiko ze ba-
lantz egin duzue?

J.M.Olasagasti: Aur-
tengo denboraldia, txalupa alde batera uzten badugu, bateletan eta traineri-
letan oso ona izan da. Aulki mugikorrean ona, oso ona ez esateagatik: zor-
tzikoak bigarren egin zuen, baina bi laukotan lema-
zaindun laukoa eta scull laukoitzean irabazi egin
genuen; eta infantiletan, berriz, neska batek lehe-
nengo aldiz Espaniako Txapelketa ekarri du Oriora.

Trainerutan, esan daite-
ke San Pedro izan dela na-
gusi. Guk bi bandera oso
garrantzitsuak irabazi di-
tugu: Zarauzkoa eta Es-



Direktibako kideak iazko Kontxako garaipena ospatzen

painiako Txapelketa.

Nik uste denboraldiko balantzea, oro har, oso ona dela.

K.: Aurrerantzean ze asmo dituzue ?

J.M.O.: Lehengo urtean esan genuen, eta aurten ere batzarrean aipatu genuen: zortzi urte egin ditugu, eta uste dugu gure etapa egin dugula. Gainera, pixkat nekatuta ere bagaude, «pilarik gabe» oraintxe.

Zera pentsatzen dugu, jendea badagoela atzetik, eta eterri behar duela, eta berentzat tokia utzi nahi diegu. Ez dut esaten aspertuta, gaizki gaudenik, baina, pixka bat halako be-trikuntza behar delakoan gaude.

K.: Ze egoeratan ja-

soko dute kluba hurrengo horiek ?

J.M.O.: Tira, ba, nik uste dut bai alde fisikoan bai giza-alderdian egoera dexentekoa dela. Untziak eta abar asko eta onak dau-de momentuan. Azken urte hauetan materiala ikaragarri sartu da; gutxi gora-behera 80 milioi baditugu zeretan, untziak, arraunak, Patrolak, erremolkeak eta-bar. Nik uste aurreko urte-tako mailan jarraitzeko

badagoela.

Arraunlarien aldetik ere, zortzi urte hauetan infantiletatik hasi eta seniorretara beti izan dugu jendea; urtero-urtero ehun bat pertsona mugitzen ditugu, eta hurrengo urtetan ere pentsatzen dut hor nonbait ibiliko direla. Klubaren egoera momentu honetan oso ona dela iruditzen zai-gu. Oso garbi dago derri-gorrezkoa den pertsona bakarra dagoela eta hori

Jose Luis dela..

Klubean hasten direnek uste dut hiru sail hauetan egin behar luketela lana: Alde batetik bi edo hiru pertsona administrazioko lanetan, errekurso ekonomikoak-eta bilatu behar dituzten pertsonak. Gero, beste talde bat estropadetara delegatu lanetan aritzeko; kontutan izan behar da martxotik hasita ia urri arte estropadak izaten direla eta bertara joan beharraga dagoela; eta, noski, horretarako ez badago pertsona dexente, erretzeko arriskua dago.

Bestalde, medikuen kontua ere garrantzitsuadu, goi-mailan ibili nahi bada jarraipen egokia behar baita.

“Beste batzuk klubaren etorkizuna bideratzeko garaia iritsi da”

Azkenik, oso garrantzi-zkoa da, baita ere, Patrolak eta erremolkeekin laguneko pertsonak egotea.

Guzti honetarako, du-darik gabe, talde eder bat izatea litzateke egokiena.

K.: Zertan da sponso-rraren kontua?

J.M.O.: CEPSAk urte-tik urteria egiten ditu kon-tratuak. Ez dago esaterik momentu honetan zer ger-tatuko den. Bain, tira, toke batzuk eman dizkigute ea nola gauden datorren urte-rako. Ez dutuste proble-marik izango denik. Klub askok izan dituzte eta Oriori ere tokatu lekiobe, baina tira, ikusi egin beharko da.

K.: Zortzi urte hauetan, kirol emaitzei dago-kienez, nolako gorabe-herak izan dituzue?

J.M.O.: Zortzi urte hauek bi zatitan banatuko nituzke: Jose Luis etorri aurretik, eta etorri ondo-ren.

Urte guztitan gure alde-tik lan eta esfortzu berdina izan da, presupuestoa ho-gei milioi inguru ibiliz. Kirol mailan, ostera, al-daketa izugarria izan da. Jose Luis etorri arte mu-gikorra eta txalupa egiten ziren, eta gero, azken urte-tan, denak jorratu ditugu: batelak, trainerilak, mu-gikorra eta trainerua.

Aurreneko urtetan mu-gikorrean ondo ibiltzen gi-nen, baina gero txalupetan



porrota izaten genuen.

Jose Luis etorri zeharo aldatu da egoera: 66 bat bandera irabazi dira; 25 txalupetan. Zuzpertze

izugarria gertatu da azken hiru urtetan; jendea berriz ere Oriori buruz hitzegiten hasia da.

Administrazio eta ges-

tio mailan, berriz, ez da askorik aldatu, ez kirol emaitzak bezala behintzat.

Esan beharra daukat udaletxearen aldetik beti jaso dugula laguntza. Bai Lizaso zegoen garaian, bai Jose Migelekin ere, ondo ulertu izan dute gure politika eta egin dugun lan soziala, ehunda piko pertso-na kirola egiten edukitzea klubean eta. Oso ondo ba-loratu izan dute gure lana, eta eskerrak besterik ezin diegu eman.

"Klubean pertsona bakarra da derrigorrezkoa: Jose Luis"

PATXI
HARTEGIA

Telefonoa: 83 18 37

URAITZ
LURRINDEGIA
KIROMASAIA ESTHETICIEN
ENDAIA 3 Tfnoa: 83 18 97

Antilla
Jatetxea

Abeslari, 2
Tfnoa: 83 07 50



Orio: gure herria, denon herria

Gure herriak berezko eskubidea du arlo guzietan desarroilatzeko, bakean eta askatasunean.

Horregatik, EAJk, komunitate oriotarraren baitan duen erresponzibilitatetik abiatuta, elementu dinamizatzaile eta integratzailea izan nahi du, herriaren desarroilo armónicoan besteekin batera elkarlanean arituz.

Egitura soziala aztertzen badugu, aise konturatzen gara gure herria kontserbadorea dela, nagusiki. Honek baditu alde on eta txarrak. Txarren artean honakoa aipa daiteke bereziki: ez ditugula aldaketak erraz onartzen. Alde onen artean, berriz, honakoak: gure izakera eta ohiturak gordetzen badakigula eta gure jendeak bere herriarekin dituen lotura eta sustariaiak sakonak direla.

Garai txarretan neurten dira ondoen herriak eta jendeak; badakigu geronen akatsek eta beste administrazioen utzikeriak guztien nahia eta eskubidea den desarroiloaren dinamikatik aparte laga gaituztela modu arriskutsuan.

Egian uste dugu oraindik ez du-

gula desarroiloaren tren hori galdu. Azkarrago joan beharko dugu eta elkartzen gaituenari probetxu handiagoa atera beharko diogu, klabe positiboan lan egiteko eta Orio dinamikoago bat proiektatzeko; egoerak eskatzen duen neurria eman behar dugu.

Horretarako, ingurunearen konplizitate positiboa dugu, hor baitugu ibaia eta bere inguru guztia. Komentituta gaude, guztiz, Orioren etorkizuna, neurri handi batean, ibaia motore ekonomiko gisa desarroilatzearen baitan dagoela.

Badirudi, horretarako dagoen oztopo nagusia, barrarena, konpondu egingo dela, epe erdira. Horrek aukera emango du, ibaiaren desarroilo integralaren barnean, beste aktuazio osagarriak burutzeko.

Orain dela gutxi egindako estudio prospektiboaren ondorioek garbi scinalatzen dute direkzio honetan: gure izakerari eutsiz, sektore ekonomiko orekatuak dituen Orio baterantz joan behar dugu.

Bestalde, Komunitate Autonomoaren irizpide orokor eta sektorialak

oriotarren nahi eta asmoen kontrakoak dira, proposatzen dutena postaleko Orio bukoliko bat baita, ia-ia.

Horiek horrela, Orioko EAJk uste du gure herriaren etorkizuna oriotarrrok discinatu behar dugula. Behartuta gaude, beraz, ahaleginak bildu, desberdintasunak alde batera utzi eta eskuzabaltasunez eta izpirtu integratzailez lan egitera. Inor ez dago sobran lan horretarako; guziak bailio du: bai gure zaharren esperientziak eta baita gure gazteen kezkak ere.

Hain zuzen ere, azken horiek —gazteak— dira etorkizuna, lekukoa jasoko dutenak, eta, beraz, beren aportazioa ezinbestekoa da.

EAJk etorkizunari optimismoz eta ausardiaz aurre egiteko prestua dagoen gazteri sano baten aldeko apostua egiten segituko du. Ez diezaiegun denon artean zapuztu etorkizuna. Oriok merezi du, Orio guztiona da.

● Erredakzioan itzulia

daddy

BAKERO, NIKI,
KAMISETA, JERTSEAK...

Estropolarri kalea, 12 - Telf. 132816 - ORIO



Eusko Gudari, 33 tlfnoa: 83 39 20

Orioko Arraunlariei

Atal honetan gure zorionik beroena eman nahi diegu Orioko arraunlari guztiei, nahiz eta aurtengo denboraldiko emaitzak, nahi bezain onak ez izan. Kontutan hartu beharrekoa baita, urte guztian zehar entrenatzen jarduten dutela eta maiz, ondo eskertzen ez den lana egiten dutela.

Zorionak baita ere, Orioko Arraun Elkarteko gainontzeko kide guztiei, beraiek egiten duten lanari esker posible delako Kluba aurrera ateratzea.

Zoriotxarrak

Galdeketari erantzun ez diotenei

Udara hasieran galdeketa-orri batzuk banatu genituen zenbait oriotarren artean, jendeak KARKARAren gainean duen iritzia jakitea interesatzen zitzaigulako.

Zoritxarrez, esan beharra daukagu oso gutxi izan direla orri horiek bete eta bueltatu dizkigutenak. Beraz, gure zoriotxarrak laguntza eskatu eta eman ez zigutenei luzatzen dizkiegu, guretzatgarrantzitsua baita Orioko jendeak zer iritzia duen jakitea, gure asmoa KARKARA hobetzea delako, ahal dugun neurrian.

Orioartekoa

Orioko arartekoak ere, oporrak alde batera utzi eta lanari ekin dio, eta hemen dituzue oriotarregandik jaso dituen komentario, propodena delakoak. Urte sasoi honetan normala denez gehienak estropadei lotuak.

Orioxapeldun. Bandera gutxi irabazi ditu aurten Oriok treineruetan, baina bere jarraitzaileak txapeldun geratu ziren Kontxa estropadetan. Hori kolorea zen nagusi beste edozeinen gainetik, handearrik handienak ere hori kolorekoak ziren. Baïna batez ere irudimen "artistikoa" erakusten nabarmendu ziren oriotarrak. Begira bestela pankarta batek idatzita zeraman poesia: "Aupa Orio, la ostia". Bestetik, baserritar batzuk akerra eraman zuten estropadarra, kamiseta horiaz jantzita. Kasu honetan gainera akerrak adarrak okerrak eta horiz pintatuak zituen, eta han ibili zen Akuarium-eko eskailerak jeisten ahal zuen moduan jendartean. Beraz, Orioko jarraitzaileak txapeldun. Hala ere, bida txopela hori zumaiarrei jantziko liekeena, ikustekoa omen zelako, beren traineruak parte hartu gabe, zumaiako gazteak gorri jantzita eta zeukaten umore ona. Orion sekula gertatuko ez litzatekeena.

Arraunlarien plurienpleoa. Arraun denboraldiak herrea egin eta arraunlarien bere atsedena ondo baino hobeto merezi duten honetan, beren famak eraginda edo beste lehia batzutara konbidatu dituzte. Batetik, Aginagako San Praisku jaietan sokatira egin behar dute, bestetik, Espainiako telebisio batek konbidatuta erronka berezi bat egin behar diote aurre Pasaian, Orioko traineruak ferry bat mugitu ezetz. Kontutan hartuta batek edo bestek boxeoan ere egin omen duela saioren bat, garbi dago plurienpleoarena, ez?

Keja bat. Arraun taldeko baziak baten keja ere iritsi zaigu, Orion jokatu zen traineru estropadan, sozioek ere ordaindu egin behar izan zutelako eta proposatzen du baziak izateak ere beharko lukeela zerbait alde eta ez dezatela kontutan hartu ordaintzeko bakarrik.

KARKARA eta Udal euskaltegia ados. KARKARAko "kazetariak" kexu dira, kalabaza asko jasotzen ari direla jendearen aldetik, aldizkarian zerbait idazteko eskatzen zaienean, eta gogorarazi nahi dute arazoa euskaraz idazteko zaitasuna baldin bida euskaltegiko ateak zabalik daudela eta tokia badela nahi duten guzientzat eta ongi etorriak izango direla.

Ijimoto

ITZIAR

Kirolak

Eusko Gudari, 23

83 31 03



ORIO

Carmen ARRAINDEGIA

tfnoak: 83 05 37 83 33 71

UDAN JAIOTAKOAK

Olaia Idarreta Garate, ekainaren 13an
 Judith Segurola Lukas, ekainaren 23an
 Ieritz Gutierrez Benitez, ekainaren 24ean
 Unai Lizarralde Makazaga, ekainaren 29an
 Enara Regidor Lopez, uztailaren 2an
 Garazi eta Iratxe Oliden Gozategi, uztailaren 23an
 Maitane Azkue Zaldua, abuztuaren 7an
 Andrea Zinkunegi Garate, abuztuaren 13an
 Nadeth Agirre Arruti, abuztuaren 28an

UDAN EZKONDUTAKOAK

Juan Karlos Lazkano Urain eta Itziar Sarasua Ibarguren, ekainaren 5ean
 Jose Ramon San Sebastian Lopez eta Rosa Illarramendi Piñales, ekainaren 12an
 Jose Frantzisko Lukas Mugika eta Lorea Zubiaurre Madariaga, ekainaren 19an
 Jose Luis Esnal Sarriegi eta Ina Leunda Zubizarreta, ekainaren 26an
 Koldo Miera Zabalza eta Jone Iturzaeta Garate, ekainaren 26an
 Ramon Alkain Ezeiza eta Ainhoa Urdangarin Manterola, ekainaren 26an
 Migel Angel Coronado Vivas eta M. Antonia Iñigo Lopez, uztailaren 17an
 Inazio Zaldua Aristondo eta Irene Agirrezabalaga Arruti, uztailaren 17an
 Iñaki Xabier Serrano Huegun eta M. Ines Berasaluce Mancisidor, uztailak 31an
 F. Jabier Sarasua Makazaga eta M. Lourdes Rodriguez Beobide, uztailaren 31an

UDAN HILDAKOAK

Francisco Robles Franco, ekainaren 9an
 Romana Leunda Azkue, ekainaren 20an
 Perpetua Loidi Zendoa, ekainaren 28an
 Carmen Caballero Paredes, ekainaren 29an
 Rafael Rivas Berasategi, ekainaren 30ean
 Bernardo Uranga Larrañaga, uztailaren 6an
 Antonia Zubiria Iraola, uztailaren 25ean
 Felipe Arostegi Iturzaeta, abuztuaren 4ean
 Maria Uranga Alestaran, abuztuaren 14ean
 Orosia Lizarraga Azkue, abuztuaren 31an

*Irakurri*

Egunkaria

Euskarazko prentsa

Atuna tomatearekin

Lau pertsonarentzat

OSAGAIAK:



Dori Fernandez
Kanpineko jatetxea

- Bi atun xerra
- Olioia
- Tipula bat
- Arraultza
- Irina
- Tomatea libra t'cerdi
- Bi piper berde
- Gatza
- Azukrea

EGITEKO MODUA:

Atuna garbitu ondoren xerratu egingo dugu eta xerra horiei gatza botako diegu. Irina eta arraultzetik pasa ondoren, frijitu egingo dugu. Eginga dagoenean, kazuela batera aterako dugu.

Beste kazuela batean tipula txikituko dugu eta piper berdeekin dena olioian jarri, eta biguntzen eduki.

Biguntzen denean tomate txikitua gehitzen zaio eta sutan edukitzentz da egin arte.

Jarraian, "pasapure"tik pasatuko dugu eta gatza eta azukrea botako dizkiogu. Prestatu a geneukan atunari saltsa botako diogu. Guztia su geldian eduki hamabost minututan eta mahaira atera.

Egin zure publizitatea

KarKara

83 15 27

aldizkarian

ARGI-GAIAK

elektrizitatea

argi halogenoak

ZUMINTZA

• Neapaindegia
• Depilazioa

Tfnoa: 83 17 56

• Estetika
• Sauna

ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO MATERIALAK

ANTONIO ALONSO S.L.

- Gres eta azulejuen erakusketa
- Komuneko eta sukaldeko altzarien erakusketa
- Sukalde ekonomikoak

Almazena eta erakusketa

Santiago auzoa
tfnoa: 13 25 33
faxa: 83 57 01

Denda eta oficina
Iturbide, 5
tfnoa: 13 10 88

ALTXERRI

Jatetxea

Telefona: 83 07 62



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa
tako aurreko aleko irabazlea.
Arantxa Mendizabal izan da.
Argazkian azaltzen da bere
senarrarekin Itsas-Ondo jatetxearen
ate ondoan. Zorionak.

Oraino lehiaketa honetan,
seguru asko uda ere tartean
zelako edo, inoiz baino karta
gutxiago jaso ditugu. Ia hurrengo
hilerako gehiago animatzen
zaretene.

Honakoa izan zen guk egindako
galderari Arantxak eman zion
erantzuna:

- ✓ Ignazio Etxeberria
- ✓ Ignacio Arruabarrena
- ✓ Jose Antonio Esnal
- ✓ Tiburcio Etxeberria
- ✓ Julio Orbañanos

Garmendia

aseguru-agentzia

Tel. 83 44 66

MAPFRE, S. A. - Aseguruak

Talai, S. M. - Ahokulariak

TFNOA: 13 37 20 Eusko Gudari 44 A behe ORIO

ORIOKO PROMOZIOAK I, s.l.

**2, 3 eta 4 gelatako etxebizitzak
merkatal lokalak eta garajeak**

Ibarra, 10

Museo: 83 41 46

Orio 20010

AURRERA

disko-taberna

ORIO

Kaixo Edaritegia

Ogitartekoak
eta pintxo bereziak

Tfnoa: 13 07 73

LAIARI

izozkiak

Eusko Gudari, 42 Telefonos: 13 42 64

KAIA JOLASAK



Hogeita hamarretik gora monitore oriotar ibili da auren udaleku ireki eta itsietan

Udalekuak Orion

Aurten, iaz bezala, Dilistak elkartea udalekuak antolatu ditu udan Diputazioaren laguntzaz. Dilistak elkartea udaleku irekiak eta itxiak antolatzeaz gain, gazte-auzolandegien ardura ere bere gain izan du.

DILISTAK TALDEA

Udaleku irekiak uztailean egin ziren Ikastolako edifizioan. Hiru urtetik 14 urte bitarteko 88 haur oriotarrek hartu zuten parte, 8 monitore eta zuzendari baten ardura-pean.

Ekintza guziak goizez egiten ziren eta haurrearratsaldea libre uzten zi-tzaien.

Udaleku itxiak

Txurrukan egindako udaleku itxiak hamabost eguneko hiru txandatan burutu ziren, uztailaren leinu hasi eta abuztuaren 15ean bukatu. Txanda bakotzean 110 haur inguruk hartu du parte, bizkaitarrak, gipuzkoarrak nahiz arabarrak. Horien artean, arazo bereziren bat zuten haurrak ere bazeuden. Begirale gisa hamaiaka gazte aritu zen txanda bakotzean eta horietaz gain, zuzendari bat eta liberatu bat ere baziaren.

Guztira, hortaz, 33 monitore eta 330 haur pasa dira

Txurrukako kanpamentutik uda honetan. Datu aipagarri gisa, esan daiteke monitore gehienak -bospalau ezik- oriotarrak izan direla.

Bai Dilistak elkartea eta bai Diputazioak oso positibotzat jotzen dute aurtengo esperientzia.

Gazte- auzolandegiak

Uztailaren hasieran gazte-talde bat etorri zen Oriora Santiago erromesbide zaharra txukuntzera. Iniziatiiba Eusko Jaurlaritza, Orioko Udal eta Dilistak elkartearren artean burutu zen.

Parte harta zuten gazteak estatuko puntu differentetako etorriak ziren. Gazte horiek goizez lan egin eta arra-

tsaldez Orio eta inguruak ezagutzen ematen zuten denbora bi begirale eta zuzendari baten laguntzarekin. Lo eta baxkaldu Ikastolako edifizioan egiten zuten.

Parte hartzaleek oso balorazio positiboa egin zuten eta adierazi zuten, besteak beste, herria oso gustokoa izan zutela eta bertako jendea, berriz, oso jatorra. Euskal Gobernuaren eta Orioko Udalaren balorazioa ere oso positiboa izan da.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu nola edo hala, parte harta duten guztiak: Orioko Udaleko langileak, Jesus Esnal, Jose Miguel Makazaga, Amaia Usandizaga, Arraun elkartea, Kofradia, Don Andres apaiza eta Orioko herri osoa.



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Oraingo honetan aiton-amonei galdetu beharrean, etxeko txikienengana jo beharko duzue erantzun zuzenaren bila. Argazkian Maria Sagrario eta hogeita zortzi ume txiki azaltzen dira.

Hamabi izen eskatzen ditugu.

Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.

Afaria Itsas Ondo Jatetxearen izango da.

Erantzunak urriaren 21erako bidali behar dizkiguzue. Gure helbidea, dakizuenez, honako hau da:

KARKARA aldizkaria

Ezetz ezagutu! lehiaketa

Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

ITSAS-ONDO

Bataioak, jaunartzeak, negozio eta talde bazkariak



kaia kalea, 7
tfono: 13 11 79



URKO ESNAOLA

16 urte

*Modernoago izan nahi badek
erderaz egin zak arin
Beti erderaz egin zak inoiz
gaziki gelditu ez hadin
Harro esan zak Euskera zahar
hori zertako hitzegin
leku denetan harroak daude
ta humilak ere berdin
Humiltasuna maite det nik ta
euskeraz nahi nuke egin*

